

# Klaudia eta baloien sekretua

**Aitor Arana**

**XX**. mendearen hasieran, Klaudia izeneko hamabi urteko neska polit bat bizi zen herri txiki batean. Garai hartan ez zen autorik egoten herrietako kaleetan, eta etxe gehienetan ez zegoen argindarrik. Jende gehiena nekazaria izaten zen eta, oso lantegi gutxi egoten zirenez, soroak lantzen ez zebiltzanak arotzak, saskigileak edo dendariak izaten ziren. Emakume gehienek soroetan, baratzeetan eta etxean lan egiten zuten. Neska-mutikoak ere oso goiz lotzen zitzaizkion lanari, eta gehienak lanean ari ziren hamaika-hamabi urte betetzen zituztenerako. Klaudiaren adina zen huraxe eta neskatoa, eskolan ikastea asko gustatzen zitzaion arren, lanean hasita zegoen zahatoak egiteko osabak zeukan lantokian.

Klaudiak goiz osoa ematen zuen lanean larruzko zahatoak josten eta, arratsalde, izebarekin egoten zen etxeko lanak egiten; izan ere, neskatoaren izeba emakume lotia zen eta oso siesta luzeak egitea gustatzen zitzaion edo, bestela, leihotik begira egotea herriko txutxumutxu guztiez jabetzeko. Izeba lo geratzen zenean, Klaudiak etxeko lanak eta garbiketak utzi, eta ezkutuka ateratzen zen etxetik, herritik kanpo zeuden ibai ondoko zelaietara joateko.

Zelai haietan, ia beti leku ezberdinetan eta —ahal zenean— ibai inguruko zuhaitzek ezkutaturik, herriko mutiko batzuek futboleant jokatzen zuten erdi ezkutuka. Klaudia haiei begira egoten zen zelai bazterretik, baloiaren atzetik korrika jokatzen hasteko irrikitan, baina mutikoek ez zioten jokatzen uzten.

—Zergatik ez? —galdetu zien behin baino gehiagotan.

—Neska zarelako! —esaten zioten beti.

—Eta zer? Hankarik ez dut korrika egiteko, ala?

—Neskek ez dute, ordea, futboleant jokatzen!

Egundoko amorrua ematen zioten mutikoek Klaudiari, beren arrazonamendu leloekin. Berak futbolaria izan nahi zuen, baina zelai bazterretik beste- ei begira egonez konformatu behar izaten zuen. Hala ere, futbola hain gogoko zuenez, mutikoen zentzugabekeria ahaztu, eta hauek animatzen hasten zen jokaldiak bizi-biziki edo guztiz kilikagariak izaten zirenean.

Egun batean, mutikoak jokaldi interesgarri haietako batean ari zirenean hain zuzen ere, Klaudiak zelaira korrika batean zetorren mutiko baten oihua entzun zuen, ibai ondoko bidetik zetorrela:

—Gurasoak! Kontuuuz! Gurasoak datoz!!

Hura esan eta minutu batera, mutikoen gurasoak, haserre eta oihuka, futbol zelaiant sartu ziren eta, belarrietatik tiraka, etxera eramant zituzten jokoa bertan behera utzita.

—Zenbat aldiz esan behar dizuegu futboleant jokatzea oso arriskutsua dela? —galdetzen zuten gurasoek, benetan haserre.

Aste hartan inork ez zuen berriro ibai inguruko zelaietan jokatu. Baina bi aste geroago, Klaudia berriro hurbildu zen zelaietara arratsalde batez izeba sutondoan lo gozoan utzita, eta mutikoak ze-

lairik urrunenean aurkitu zituen jokoan. Laster ohartu zen, zelai bazterretik begira zegoela, mutiko txiki eta berri bat ari zela bi taldeetako batean jokatzen. Horrek bat-bateko haserrea sortu zion neskari: zergatik ez zioten uzten jokatzen berari, baina bai mutiko txiki bati? Klaudiak jokoa eten zuen zelai erdira joanez. Mutikoak biziki haserretu zitzaizkion, baina neskak gogor egin zien; ezin zuen ulertzen zergatik berak ezin zuen jokatu, eta mutiko txiki hark bai.

Neskatoaren kexak alfer-alferrik izan ziren, ordea, eta mutikoek zelaitik kanporatu zuten, beti bezala, tirabira labur baten ondoren. Klaudia bihozgabetuta geratu zen; partidua ikusten geratzeko gogoan joan zitzaion eta etxerako bidea hartu zuen burumakur. Orduan futbol zelaiant zerbait gertatu zen, mutikoek penaturik baleude bezalako oihu bat egin zutelako: trapezisten bat ariketa zailen bat egiten saiatu, eta lurrera erortzen ikusi balute bezala izan zen.

Mutilei begiratu zien Klaudiak eta berehala ikusi zuen gertatu zena: Iñaki izeneko mutiko txiki berriak ostiko handi bat eman zion nonbait baloiari, eta hau zuhaitz baten adar hautsi eta zorrotzaren kontra joan zen. Adar hautsiak baloia zulatu zuen eta orain lurrean zegoen, airerik gabe eta apurtuta. Hura ikusita, mutiko guztiak etxera joaten hasi ziren, isilik eta atsekabeturik.

—Baina zer gertatzen da? —galdetu zuen Iñaki txikiak harriturik—. Ekar dezagun beste baloi bat eta partidua jarraituko dugu.

Baina bere lagunak, ezerean azalpenik



TERESA MARTÍ.

eman gabe, futbol zelaitik alde egiten jarraitu zuten. Klaudia hurbildu egin zitzaion, eta honela galdetu zion:

—Ez dakizu baloia puskatzen duenak berria ekarri behar duela? Eta zure lagunek ez dizute esan baloiak non lortzen diren, ala?

Iñakik ez zuen erantzun, eta horrek ezer ez zekiela adierazi zion neskari. Herriko inork ez zuen kalean esaten zergatik gurasoek ez zieten beren semeei futboleant jokatzen uzten, baina Klaudia uste zuen denek zekiten sekretua zela hura. Garbi zegoen, aldiz, Iñakik ez zeukala kontu haren berri, nahiko txikia zelako agian.

—Leku arriskutsu batetik datoz baloiak —argitu zuen Klaudia—, eta zuk bat ekarri beharko duzu, futboleant jokatzen jarraitu nahi baduzu.


—Ekarriko dut, orduan —esan zuen Iñakik—. Esango didazu non dagoen leku hori?

—Zatoz nirekin.

Lagun berriak ibai ondoko bidean oinez abiatu ziren, herrira joateko norabidearen kontrako aldera, hau da, ibaian gora. Halako batean, ibai nabarmen zabaltzen zen leku batera heldu ziren, eta han, ibaiaren erdian arrautza itxurako uharte luzexka bat zegoela ikusi zuten. Uhartearen belarrez estalita zegoen eta alde

baten bi harkaitz handi samar zeuzkan. Baloiak hantxe sortzen zirela esan zion neskak mutikoari eta, besterik gabe, oinetakoak erantzi zituzten ibaian sartu eta uhartera iristeko. Han, belar artean ur putzuak zeudela ikusi zuten eta putzu haiek baloi zuri borobil-borobilez beteta zeudela. Iñakik irribarre egin zuen eta baloi eder haietako bat hartu zuen eskuetan.

Orduan uharteko bi harkaitzen artetik igel itxurako izaki erraldoi bat atera zen; ia bi gizon bezain altua zela ikusi zuten bi neska-mutikoek. Bere mihi luze eta itsaskorra atera eta Iñaki kolpe batean harrapatu zuen, kamaleoiek euliak harra-



TERESA MARTÍ.

patzen dituzten bezalaxe. Iñakik hartutako baloia belar artera erori zen. Igel erraldoiak azkar-azkar eramanezuen mutikoa airean, eta bi harkaitzen artetik desagertu zen lurpean.

Klaudia zer egin ez zekiela geratu zen izututa. Herrira laguntza bila joatea pentsatu zuen, baina, erabakior, igelaren atzetik joatea bururatu zitzaion. Bi harkaitzen artetik lurpera sartu zen horrela, kobazulo batean sartuko balitz bezala. Begiak leku hartako argi eskasera ohitu zitzaizkionean, beheantz zihon korridore moduko batean zegoela ikusi zuen eta, hau bukatu zenean, estalagmitaz eta estalagmitaz betetako areto antzeko leku handi eta zabal batera heldu zen.

Estalagmita handi baten atzean ezkutaturik, Klaudiak ikararuta ikusi zuen igel erraldoiak Iñaki beste estalagmita batean lotzen zuela, ahoan sortzen zitzaion txistu itsaskorra erabiliz. Neskak laster ikusi zuen Iñaki bezala lotutako beste mutiko batzuk ere bazeudela leku hartan. Denak lo zeuden, Iñaki txikia geratzen ari zen moduan, igelaren txistuak zeukan gairen baten eraginez, ziur aski.

Herrian, mutiko haiek guztiak hilda zeudela uste zuten denek, eta gurasoek horregatik ez zieten gainerako mutikoei futboleant jokatzeko utzi nahi: baloi bila joaten zirenak desagertu egiten zirelako. Orain Klaudiak bazekien bizirik

zeudela, eta denak handik onik ateratzeko moduan pentsatzen hasi zen.

Horrela, igel erraldoiarekin hitz egitea erabaki zuen eta, horretarako, bere ezkutalekutik atera zen.

—Aska itzazu mutiko hauek, mesedez!

Igelak harriturik begiratu zion ustekabeant azaldu zitzaion neskari.

—Zure lagunak al dira? —galdetu zion.

—Bai! —erantzun zuen neskak ahots sendoz.

Orduan igelak adierazi zion nola mutiko haiek oso gaiztoak ziren, arrautzak lapurtzen zizkiotelako noizeant behin. Arrautzak eramanean, haien barruan zeuden igelaren umeak hiltzen ziren, eta horregatik zeuzkan mutikoak preso hartuta. Igelak esan zuen jadanik zahartuta zegoela eta hezurak gogortu egin zitzaizkiola; horregatik ezin omen zituen ongi zaindu arrautzak, eta lan hori mutikoei eginarazten zien, nahi zuenean esnatzen zituelako. Mutikoen lana inguruan inor ez zegoenean arrautzei bira ematea izaten zen, edo lekuz aldatzea eguzkiak gogorregi jotzen zuenean.

Baloiaren misterioa argitu ondoren, Klaudiak ideia bat izan zuen, eta honeia esan zion igelari:

—Mutikoak gehiago zure arrautzen bila baloiak direlakoan ez etortzea ziurtatzen badizut, denak askatuko dituzu.

—Bai pozik! Baina nola ziurtatuko dizazu horrelakorik?

—Zuk itxaron hemen, mesedez. Iluntzea baino lehen itzuliko naiz konponbidearekin.

Klaudia lasterka atera zen igelaren bizilekutik, azkar zeharkatu zuen ibaia, eta zitzu bizian joan zen bideant behera herri aldera. Hara iristean, zuzenean abiatu zen osabaren lantokira. Bururatu zitzaion ideia ongi ateratzea desiatu zuen bihotz-bihotzez.

Bizpahiru ordu eman zituen lanean hainbat larru puska elkarri josten, larruzko zakutxo borobil moduko bat egin arte. Gero globo antzeko puxika bat jarri zuen aieretik ez ateratzeko larru zatien josturik, eta zahatoen aho batez itxi zuen guztia. Jarraian haizea egiteko makina bat eskatu zion lantokiko langile bati eta, larruzko baloi egin berriaren ahoa barrura bultzatu eta sartu ondoren, neskatoak baloi puztu eta amaitutzat eman zuen lana.

Berriz ere korrika abiatu zen, baina igel erraldoiaren bizitokira zuzenean joan beharrean, lasterka igaro zituen seme futbolariak galdu zituzten gurasoen etxeak. Berarekin ibaira joateko eskatu zion eta, hasieran hauek beren semeak berriro ikusiko zituztela sinetsi ezin bazuten ere, gurdi batzuk prestatu zituzten eta beren zaldirik onenak hartu, ibaira haien gainean oinez baino azkarrago heltzeko.

Klaudia, igelari hitz eman zion bezala, ilundu baino lehen itzuli zen ibaiko kobera. Besapean larruzko baloia zeramala joan zen igelarengana poz-pezik, gurasoei ibai ertzeant bere zain egoteko eskatu ondoren. Igel erraldoiaren aurreant heldu zenean, baloi berria irribarrez erakutsi zion.

—Begira zein ona den egin dudant baloi hau futboleant jokatzeant!

Eta berebiziko ostikoa eman zion baloiari, eta honek errebote egin zuen estalagmita batetik bestera. Igelak berehala ulertu zuen mutikoeant ongi jokatu ahal izango zutela larruzko baloiaz, eta ez zutela gehiago bere arrautzik lapurtu beharrik izango. Irribarre handi bat egin zuen Klaudiari eskerrak emateant batera.

Askozant handiagoak izan ziren gurasoen irribarreak eta poz oihuak, Klaudia mutiko guztiekin kobazulotik irteten ikusi zutenean.